



## Oinarriak

- **Aurkezteko Epea:** Urriaren 15etik azaroaren 15era.
- **Aurkezteko lekua:** Urkome.
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**  
Bi zatitan banatuta ideia edo egitasmo bakoitzerako: datu pertsonalak alde batetik, eta proiektu edo egitasmoaren informazioa, bestetik.
- **Guztira 6 atal. Atal bakoitzean:**  
**3.000 €**
- **Eremua:** Urola Kostan garatutako proiektua izatea.
- **Parte-hartzaileak:** Erakunde, elkarte eta partikularrak, eta sektoreko enpresak.
- **Proiektuak:** 2011.urtean egitasmoa edo ideia aurkeztu, baina exekuzioa garatu gabe dutenak.





BIGARRENGO

# URKOME SARIAK



**A**urten bigarrengo aldiz emango dira Urkome sariak, Urola Kostako landa eremuan egiten diren ekimen edo jarduera berritzaileak saritzeko. Sariak 6 atal hauetan emango dira:

- Nekazaritza Jardueraren Garapena atalean.
- Landa Eremuetako Bizi Kalitatearen hobekuntza atalean.
- Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa atalean.
- Landa Eremuak betetzen dituen funtzioen zehaztapen eta errekonozimendu atalean.
- Sari berezia IREKIA, bozka bidez egingo dena.
- Ingurugiro etxea Fundazioak emango duena.

Sari hauen bidez landa eremuak gizarte osoarengan eragiten duen sentsibilizazioa areagotu nahi da.

## Balorazio irizpideak

- 1 Ideia berritzailea izatea produktu edo zerbitzu berria sortuz.
- 2 Berrikuntzak egun dauden produktu edo zerbitzuetan.
- 3 Teknologia berrien aplikazioak aurreikusten dituzten proiektu edo ideiak.
- 4 Bideragarritasun ekonomikoa baloratuko da.
- 5 Enplegua sustatzen duten proiektuak baloratuko dira.
- 6 Berdintasuna aurreikusten duten proiektuak.
- 7 Gazteen ideiak gehiago baloratuko dira.

## Epaimahaiaren erantzuna

- Epaimahaiak sariak askatasun osoz emateko gaitasuna du, eta adostasunez hartuko ditu erabakiak, irizpideen arabera.
- Irabazleei telefonoz deituko zaie eta [www.urbome.com](http://www.urbome.com) web orrialdean jarriko dira.
- Epaimahaiak atal bakoitzerako dagoen saria nola banatu erabakitzeko eskumena izango du, bai eta eman gabe uztekoa ere, horretarako proiektu egokirik ez dagoela iritziz gero.

### Parte-hartzaileen betebeharrak

- Sari lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Ideia edo proiektua behar bezala aurkeztea.
- Datuen fidagarritasuna bermatzea.

### Antolakuntzaren betebeharrak

- Parte-hartzaileek aurkeztutako proiektu edo ideiak isilik edo babesturik gordetzea.